



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

Jardueren memoria

*Lehiaren euskal agintaritza
2017*



Jardueren memoria

*Lehiaren euskal agintaritza
2017*





I. Aurkezpena.

II. Lehiaren defentsa.

1. Lehiaren defentsarako prozedura. Faseak eta amaitzeko aukerak.
2. Lehiaren defentsaren eremuan 2017an egindako jarduketak.
 - A. Hasitako prozedurak.
 - B. Burututako etxeko ikuskapenak.
 - C. 2017an indarrean egon diren zehapen-espeditentak.
3. LEKek emandako ebazpenak.
 - A. Bizkaiko Abokatuen Elkargoaren ebazpena. 126-SAN-(2015) LEA/AVC espeditentea.
 - B. Bizkaiko Psikologoaren Elkargoaren ebazpena. 146-SAN-(2015) LEA/AVC espeditentea.
 - C. Gipuzkoako HJAen Elkargoaren ebazpena. 188-SAN-2016 LEA/AVC espeditentea (2017-05-30).
 - D. Arabako Graduatu Sozialen Kolegio Ofizial Prestuaren ebazpena. 162-SAN-(2016) LEA/AVC espeditentea.
 - E. EAEko eskola-jantoki publikoen ebazpena (II). 184-SAN-2016 LEA/AVC espeditentea (2017ko urriaren 3a).
 - F. Ogasun Mugiezinetakako Ordezkarien Arabako Lanbide-Elkartearen ebazpena. 185-SAN-2016 LEA/AVC espeditentea. (2017ko urriaren 31).
 - G. EAEko Premiazko Garraio Sanitarioaren Sarearen ebazpena. 26-SAN-2013 LEA/AVC espeditentea. (2017ko azaroaren 21a).
 - H. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialari buruzko hiru ebazpen. LEA/AVC espeditentek: 74-2015 (Araba), 133-2015 (Bizkaia) eta 132-2015 (Gipuzkoa).
 - I. Gipuzkoako bidaiarien garraioaren ebazpena. 130-SAN-2016 LEA/AVC espeditentea.
4. MLBNri bidalitako auziak.
5. Lankidetzaren Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Fiskaltzarekin.
6. LEA/AVCren defentsaren arloko jardueraren bilakaera.

III. Lehiaren sustapena (Advocacy).

1. Txostenak.
 - A. Elkargo eta kontseilu profesionaleri dagokienez.
 - a. Bizkaiko Albaitarien Legezko Elkargoa. 10/22-PROM-2017 LEA/AVC espeditentea. (2017ko martxoaren 9a).
 - b. Bizkaiko Aseguru-Bitartekarien Elkargo Ofiziala. 10/21-PROM-2017 LEA/AVC espeditentea. (2017ko maiatzaren 30a).
 - B. Txosten arauemaileak.
 - a. Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren Dekretu Proiektuari buruzko txostena. 222-PROM- 2017 LEA/AVC espeditentea (2017ko otsailaren 9a).



- b. EAEko eraikinen ikuskapen teknikoa eta ikuskapen teknikoen erregistroa arautzeko dekretu-proiektuari buruzko alegazioen gaineko txostena. 248-PROM-2017 LEA/AVC espedientea (2017ko azaroaren 21a).
 - c. Bilboko Hiri Antolaketarako Plan Orokorraren aldaketa xehetuari buruzko txostena, turismo-ostatuen erabilera arautzeari dagokionean. 251-PROM-2017 LEA/AVC espedientea (2017ko abenduaren 18a).
- C. Kontratazio publikoaren inguruan.
- a. Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailaren eta Jabetza eta Merkataritza Erregistratzaileen Elkargoaren arteko zerga-arloko lankidetzeta-hitzarmenari buruzko txostena. 52-PROM-2017 LEA/AVC espedientea. (2017ko abenduaren 18a).
 - b. Bilboko Udalaren eta Metropoli Fundazioaren artean sinatutako negozio juridiko jakin batzuei buruzko txostena. 92-PROM-2017 LEA/AVC espedientea. (2017ko maiatzaren 30a).
- D. Beste batzuk.
- a. Gasteizko txandakako aparkaleku publiko jakin batzuen doakotasunari buruzko txostena. 96-PROM-2017 LEA/AVC espedientea. (2017ko martxoaren 9a).
 - b. Obra handietako eraikuntza- eta eraispn-materialen eta hondakinen kudeaketari buruzko txostenaren egiaztapenaren inguruko txostena. 113-PROM-2017 LEA/AVC espedientea. (2017ko martxoaren 9a).
 - c. CECOBik antolatutako Bonodekor kanpainei eta BFaren finantzaketari buruzko txostena. 197-PROM-2017 LEA/AVC espedientea. (2017ko apirilaren 11).
 - d. Eibarko Herritar Txartelari buruzko txostena. 241-PROM-2017 LEA/AVC espedientea. (2017ko maiatzaren 30a).
 - e. Eskola-uniformeen eta eskola-materialaren banaketako lehiaren gaineko eraginari buruzko txostena. 81-PROM-2017 LEA/AVC espedientea. (2017ko ekainaren 27a).
 - f. "10+ MERKATARITZA BONUA" laguntza-programari buruzko txostena. 257-PROM-2017 LEA/AVC espedientea. (2017ko azaroaren 27a).
- E. LEA/AVCren sustapenaren arloko jardueraren bilakaera.

2. Kontsultak.

2017ko legegintza-mugarriak.

- A. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/104 (EB) Zuzentarauaren transposizioa, 2017ko maiatzekoa.
- B. Sektore Publikoko kontratuen Legearen (azaroaren 8ko 9/2017) argitalpena.

3. Gazteen arteko lehia.

- A. Unibertsitatea.



Abokatutzaren Jarduerako Masterra (Deustu).

LEA/AVCko praktika-programa.

B. Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeak: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa.

4. LEA/AVCkantolatutako biltzarrek.

A. Lehiarako eskubidea urratzearen ondoriozko kalteen erreklamazioei buruz antolatutako jardunaldia.

5. LEA/AVCren webgunea.

IV. Aurkaratzea.

V. Jarduera instituzionala.

1. Kargu-uzteak eta izendapenak.

2. Agerraldia Eusko Legebiltzarrean.

3. Lehia Defendatzeko Kontseiluaren lehia-sarea.

4. MLBNko lantaldeak.

A. Koordinazio-lantaldea.

B. Lehia sustatzeko lantaldeak.

C. Kontseiluen lantaldea.

D. Lehiaren Defentsarako X. Jardunaldi Nazionalak, Santiago de Compostelan.

E. Antitrust Zuzenbideko Behatoki Iraunkorra, Moenako (Italia) Trentoko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatearekin elkarlanean.

5. Erakunde-harremanak.

6. LEA/AVCren agenda.

7. Lehiaren arloan dauden sareak sendotzea.

A. Lehiaren Zuzenbideko Espainiako Elkarteak.

B. Lehiaren Sare Akademikoa.

V. Aurrekontua ea giza baliabideak.

1. Aurrekontua.

2. Giza baliabideak.

VI. Erabilitako laburdurak.



I. Aurkezpena

Lehiaren Euskal Agintzaritza (LEA/AVC) otsailaren 1eko 1/2012 Legearen arabera sortu zen erakunde autonomia da. Haren xedea da EAEko eremuko merkatuen lehia eraginkorra eta funtzionamendu egokia bermatzea eta sustatzea. Horretarako, zehatzeko, sustatzeko, aurkaratzeko, irizpena emateko, kontsultak erantzuteko eta arbitrajea egiteko eskumenak gauzatzeko ditu.

Memoria honetan, erakundeak 2017ko ekitaldian garatu duen jarduera agertzen da. Aldaketa-urtea izan da LEA/AVCn; izan ere, irailean Lehiaren Euskal Kontseiluaren berrikuntza partziala gertatu zen, kontseiluaren lehendakari berria eta kide berri bat izendatu baitira. Era berean, azaroan idazkari nagusi bat sartu zen zuzendaritza-talde berrian, lanpostu hori hutsik zegoen eta.

Egitura berri horrekin, LEA/AVCk jarraipena eman dio 2017ko hasieratik garatu duen lanari, erakunde sakontzeko eta bultzatzeko asmoz. Horretarako, urrian gogoeta estrategiko bat hasi zen, agintaldi berriaren abiapuntu gisa, lehenasunezko jarduerak eta kudeaketa-helburuak identifikatzeko aldera.

Testuinguru horretan, 2017. urtea LEA/AVCn jarduerari eusteko urtea izan da. Zehatzeko prozeduraren eremuan 41 espediente izapidetu dira guztira, fase guztietan, eta bai profesionalen elkargoei bai kontratazio publikoari buruzko gaiak nagusitu dira. Lehia sustatzeko edo Advocacy delako jarduerari dagokionez, LEA/AVCk 48 gaitan lan egin du, eta, berriro ere, profesionalen elkargoak eta zerbitzuak sustatzeko txostenak garrantzitsuak izan dira. Gainera, LEA/AVCk bai enpresen sektorearen bai herritarren kontsulta asko ebatzi ditu.

Irailetik aurrera, LEA/AVCren agenda instituzionala nabarmentzekoa izan da, zenbait sektore instituzional, politiko, ekonomiko eta sozialekin harremanak eta bilerak izan baititu, panorama sozioekonomikoan erakunde aktiboa izateko helburua betetze aldera.

Hori guztia dela eta, 2017a urte emankorra izan da LEA/AVCrentzat, landu dituen espedienteen kopuruagatik ez ezik haren presentzia sozialagatik ere, hori funtsezko eragilea baita enpresen arteko lehia sustatzeko, Administrazioen arauketa hobetzeko eta, azken finean, herritarrei eta gizarteari oro har laguntzeko.

Alba Urresola

Lehendakaria


II. Lehiaren defentsa

1. Lehiaren defentsarako prozedura. Faseak eta amaitzeko aukerak


Lehia askearen aurkako jokabideen kontra borrokatzeko, LBLk zehapen-prozedura administratibo berezi bat arautzen du. Zehapen-prozedura berezi horren ezaugarrietako bat da ondoz ondoko bi faseren bidez gauzaten den prozedura dela; faseak organo desberdin eta bereizi banatan gertatzen dira: Ikerketa Zuzendaritza instrukzioaz arduratzen da, eta Lehiaren Euskal Kontseilua (LEK) ebazten duen organoa da. LEKen ebazpena espedientearen artxiboa, zehatzeko ebazpena edo ohiko amaiera itundua izan daiteke.

Jarraian, zehapen-prozeduraren prozesuen diagrama bat jasotzen da:


ZEHAPEN-PROZEDURAREN FASEAK



1 ZEHAPEN-PROZEDURAREN HASIERA




2 INFORMAZIO ERRESERBATUA







3.1 ZEHAPEN-ESPEDIENTEA IREKITZEA ETA BERE INSTRUKZIOA EGITEA 3.1



3.2 GERTAKARIAK ZEHAZTEKO AGIRIA ETA LDE-REN 33. ART. AGIRIA 3.2



3.3 INSTRUKZIO-FASEA IXTEA LDE-REN 33.1. ART. 3.3



3.4 EBAZPEN-PROPOSAMENA 3.4



4

KONTSEILUAREN EBAZPENA

4

LD Eren 38. art.:
 EBAZPENAREN
 EDUKIA

- Espedientearen aurrekariak.
- Frogatutako gertakariak.
- Horien egileak.
- Kalifikazio juridikoa.
- Ebazpenaren oinarri juridikoak.

LD Eren 53.1. art.:
 KONTSEILUAREN
 ADIERAZPENA

- LDLn debekatutako jokabideak izan direla.
- Duten garrantzi txikiagatik (*de minimis*), lehiari nabarmen eragiteko gaitasunik ez duten jokabideak izan direla.
- Ez dela egiaztatu debekatutako jokabiderik izan denik.

LD Eren 53.2. art.:
 KONTSEILUAREN
 AGINDUAK

- Debekatutako jokabideak epe jakin betean bertan behera uztekoak.
- Baldintza edo betebeharrak jakin batzuk ezartzekoak, egiturei edo jarrerari dagozkienak.
- Debekatutako jokabideen ondorioak mugiaraztekoak.
- Isunak ezartzekoak.
- Jarduerak artxibatzeak.
- LDLk baimentzen duen beste edozein neurri hartzeak.

ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA, EHJAN-REN AURREAN

2 hilabete

5

KAUTELA-NEURRIAK

5

INSTRUKZIO-
FASEAN

Ikerketa Zuzendaritzak Kontseiluari proposatzen dio (ofizioz edo **interesdunen ekimenez**).

2 hilabete eskabidearen datatik, edo espedientea irekitzeko Ebazpenetik*.

EBAZPEN-
FASEAN

Kontseiluak Ikerketa Zuzendaritzari txostena eskatzen dio (ofizioz edo **interesdunen ekimenez**).

2 hilabete Ikerketa Zuzendaritzari txostena eskatzen zaionetik.

ALEGAZIOAK

5 egun, Ikerketa Zuzendaritzaren proposamenaren edo txostenaren jakinarazpenetik.

Epea agortuta Kontseiluak ebatziko du.

EBAZPENA

3 hilabete, eskabidearen datatik, edo espedientea irekitzeko Ebazpenetik*.

Epea agortuta, isiltasuna negatiboa izango da eta eskabidea ezetsiko da.


* Zuhurtasunezko neurriren eskabidea espedientea ireki baino lehen aurkeztzen bada **2 hilabete**ko epea espedientea irekitzeko Ebazpenaren datatik hasiko da zenbatzen.



6 ITUNDUTAKO AMAIERA 6

Ikerketa Zuzendaritzak akordioen eta debekatutako jokabideen eremuko zehapen-prozeduraren itundutako amaiera lortzeko jarduerak hastea erabaki ahal izango du.



- Prozeduraren edozein unetan, betire Ebazpen-proposamena egin baino lehen.
- **Debekatutako jokabideen ustezko egileek** proposatuta.
- Interesadunei jakinaziko zaie, prozeduraren gehienezko epearen zenbaketa itundutako amaieraren bukaeraraino etenda geratzen den adierazi.



6 ITUNDUTAKO AMAIERA 6

Ikerketa Zuzendaritzak onartutako konpromiso-proposamena

- Ikerketa Zuzendaritzak interesdunei igorriko die. Alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, **adierazitako epean**.



2. Lehiaren defentsaren eremuan 2017an egindako jarduketak

A. Hasitako prozedurak

Zehapen-espediente bat hasteak ez du amaierako ebazpena aurretik juzgutzen. Espedientea hasten denetik, 18 hilabeteko epea dago hura bideratu eta ebazteko.

Hala, 2017. urtean bi zehapen-espediente berri hasi dira:

HASITAKO ESPEDIENTEAK				
Kopurua	Izena	Hasiera-data	Jatorria	Espedientea jaso dutenak
224	ARRASATEKO AUTOESKOLAK	2017-04-03	Ofizioz	R.L.P. (ARRASATE AUTOESKOLA) J.I.G. (LENIZ AUTOESKOLA) PEÑAKOBA AUTOESKOLA SL (PEÑAKOBA AUTOESKOLA) I. T. G. (TELLERIA AUTOESKOLA)
217	ERRENTERIAKO AUTOESKOLAK	2017-04-03	Salaketa	ZURRIOLA AUTOESKOLA SL (AUTOESCUELA LAGUNAK) BIDEBIETA ANAIK SL (BIDEBIETA AUTOESKOLA) OIARTZUN AUTOESKOLA SL (OIARTZUN AUTOESKOLA) J.S.P. (SARRIEGUI AUTOESKOLA)

B. Burututako etxeko ikuskapenak

LEA/AVCko Ikerketa Zuzendaritzak ikuskapenak egin zituen euskal administrazioei aholkularitza-zerbitzuak ematen dizkieten zenbait enpresaren egoitzetan, enpresek dituzten eskaintzak beren mesedetan eta interes orokorraren aurka aldatzen ari zirelako zantzuak ikusita.

Egindako ikerketan, enpresek agian legez kontra aldatu dituzten dozenaka kontratu zehatz-mehatz aztertu beharko dira. Hala ere, ikuskapenetan bildutako dokumentazioa irakurrita, egiaztatu zen zehapen-espedientea, hala badagokio, hasteko eta bideratzeko agintaritza eskuduna MLBN zela, EAEko lurralde-eremua gainditzen zuten eragindako administrazio publikoen kontratuak zeudelako. Horrenbestez, espedientea MLBNri bidali zitzaion.

C. 2017an indarrean egon diren zehapen-espedienteak

2017an indarrean egon diren zehapen-espedienteak laburbiltzen dituen taula eransten da. Bertan, bakoitzaren egoera zehazten da.

Espediente-zk./urtea	Espedientea	Ebazpena BAI/EZ	Ebazpen mota	Egoera 2018ko ekainean
126/2015	Bizkaiko Abokatuen Elkargoaren ofiziozko txanda	BAI	Zehatzea	Zehatzea Kasazioa AGn
146/2015	Bizkaiko Psikologoaren Elkargo Ofiziala	BAI	Zehatzea	Irmoa (zaintza)
188/2016	Gipuzkoako HJAen Elkargoa	BAI	Ez da arau-hausterik egiaztatu	Irmoa



162/2016	Arabako Graduatu Sozialen Kolegio Ofizial Prestua	BAI	Zehatzea	Kasazioa AGn
184/2016	Eskolako jantokien salaketa, 2015eko lizitazioa	BAI	Artxibatzea	Irmoa
185/2016	Ogasun MugiezinetakO Ordezkarien Arabako Lanbide-Elkartea	BAI	Zehatzea	Irmoa (zaintza)
26/2013	EAEko Premiazko Garraio Sanitarioaren Sarea	BAI	Artxibatzea	Irmoa
74/2015	Arabako arkitektoen lan-poltsak	BAI	Amaiera itundua	Zaintza
132/2015	Gipuzkoako arkitektoen lan-poltsak	BAI	Amaiera itundua	Zaintza
133/2015	Bizkaiko arkitektoen lan-poltsak	BAI	Amaiera itundua	Zaintza
130/2016	Gipuzkoako garraioa	BAI	Zehatzea	Errekurtsoa EAEJANen
224/2017	Arrasateko autoeskola	EZ	--	Bideratzen
217/2017	Errenteriako autoeskolak	EZ	--	Bideratzen

3. LEKek emandako ebazpenak

A. Bizkaiko Abokatuen Elkargoaren ebazpena. 126-SAN-(2015) LEA/AVC espedientea

Bizkaiko elkargokide den eta bulegoa Getxon duen abokatu batek salaketa bat aurkeztu zuen Bizkaiko Abokatuen Elkargoak Bizkaiko ofiziozko eta zaintza iraunkorreko txandetan izena ematea galarazi ziolako. Ondorioz, LEKek 100.000 €-ko isuna ezarri zion Bizkaiko Abokatuen Elkargoari, eta behartu zuen ofiziozko eta zaintza iraunkorreko txandetan sartzeko behar ez diren lurralde-mugak bere estatutuetatik ezabatzea.

Araudiak —Europakoak eta estatukoak— zerbitzuetarako eta jarduera ekonomikoetarako sarbidea izateko askatasunaren printzipioa ezartzen du. Askatasun hori interes orokorrari lotutako xede bat erdiesteko “ezinbestekoa” denean soilik muga daiteke.

Bizkaiko Abokatuen Elkargoak, txandak antolatzean, eskatzen zuen, beste betekizun batzuen artean, profesionala txandari zegokion mugapen judizialean bizi izatea, bertan edukitzea bulego “nagusia irekita” eta ofiziozko beste ezein txandatan erregistratuta ez egotea.

LEA/AVCk pentsatu zuen ezen, betekizun horiek ezarriz, elkargoak Bizkaiko lurraldea sei mugapen judizialean zatitu zuela; horrela, eragozten zuen profesionalek batean baino gehiagotan —nahiz eta, kasuren batean, kilometro gutxitara eta metroz komunikatuta egon— eta beste probintzia batzuei zegokienez jardutea.

LEA/AVCk pentsatu zuen betekizun horiek herritarrei kalitate oneko eta berehalako zerbitzua emateko beharrezkoak ez zirela eta interes orokorraren aurka egiten zutela.

Abokatuen beste elkargo batzuetan, hala nola, Alcalá de Henaresen, Valentzian, Madrilen eta Kanarietako guztietan, ez dago bizitegi-betekizunik edo horren antzekorik.

LEA/AVCren aburuz, elkargoaren jokabideak zerbitzua emateko gaitasuna eta prestutasuna

zuten abokatuen sarbidea galarazten zuen eta merkaturia amarruz zatitzen zuen, legez kontrako eran.

2018ko martxoaren 19an, Bizkaiko Jaurerriko Abokatuen Elkargo Ohoretsuak aurkeztutako errekurtsua baiesteko epaia eman zen, ulertu baitzen ofiziozko txandaren zerbitzua ez dela merkatu bat eta ezin zaiola LBL aplikatu. Iritzi hori Andaluziako JANek¹ kasu berdin-berdin batean adierazitakoaren aurkakoa da; alegia, esan zuen ofiziozko txandak emandako zerbitzuak badituela merkatu baten ezaugarriak. Gaiari buruzko epai desberdinak daudenez, LEA/AVCk kasazio-errekurtsua prestatu du AGren aurrean.

Horrez gain, 2018ko martxoaren 26an, Auzitegi Nazionalak (AN) EAEJANen iritzi bera eman zuen MLBNk Guadalajarako Abokatuen Elkargoari ezarritako zehapen bat (30.000 €) zela eta, doako laguntza juridikoko zerbitzuaren kudeaketagatik. Era berean, 2018ko apirilaren 12an, ANk erabaki berbera hartu du MLBNk Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Orokorriari ezarritako zehapenari buruz (59.983 €). MLBNk orobat kasazio-errekurtsua prestatu du AGren aurrean, LEA/AVCren arrazoi berberengatik.

B. Bizkaiko Psikologoaren Elkargoaren ebazpena. 146-SAN-(2015) LEA/AVC espedientea

2017ko apirilaren 11n, LEKek 2.347 euroko zehapena ezarri zion Bizkaiko Psikologoaren Elkargoari, elkargokideek emandako zerbitzuen gutxieneko prezioak bateratzeko aukeraren aurkako estatutuak edukitzeagatik, eta haren profesionalen zerbitzu-sariak edonola aipatzera hertsatu zuten.

LEA/AVCk 2009an debeku hori ohartarazi zion Psikologoaren Elkargoari, profesionalen beste elkargoei bezala; beraz, erabat jakitun zen haren estatutuen edukia legez kontrakoa zela. 2015ean soilik, zehapen-espedientea ireki zela jakinarazitakoan, aldatu zituen elkargoak estatutuak, legez kontrako manua ezabatuz.

Profesionalen kidegoek zerbitzu-sariak finkatzea zeharo debekatuta dago 2006. urteko Barne Merkatuko Zerbitzuen Zuzentarauaren transposiziotik²; Omnibus Legea³ eta Aterki Legea⁴ direlakoan bidez egin zen, eskatu baitzuten zerbitzu-jardueren garapena oztopatzen zuen edukia zuen estatu kideetako araudi guztia eta, ondorioz, profesionalen elkargoaren araudia aldatzeko.

Zehazki, Omnibus Legeak, 2009an sartu baitzen indarrean, Profesionalen Elkargoei buruzko Legearen (PEL)⁵ zenbait manu aldatu zituen eta zera ezarri zuen: "Elkargo profesionalak eta haien mendeko erakundeek ezin izango dute zerbitzu-sari profesionalari buruzko baremo orientagarriarik, gomendiorik, jarraibiderik, ez araurik ezarri, laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoa izan ezik".

Elkargoek gutxieneko zerbitzu-sariak edo zerbitzu-sari orientagarriak ezartzen badituzte, profesionalari beren prezioak askatasunez eta kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta zehaztea eragozten diete eta zerbitzuen prezioak gorantz bateratzen dituzte.

2009tik zerbitzu-sarien baremoen aipamenak informalak eta noizbehinkakoak izan zirenez,

1 Andaluziako JANen 2016ko martxoaren 28ko epaia. Id. Cendoj: 29067330032016100001

2 2006/123/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2006ko abenduaren 12koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa. 2006ko abenduaren 27ko DOUEL, 376. zk.

3 25/2009 Legea, abenduaren 22koa, zenbait lege aldatzen dituena, zerbitzu-jardueretarako sarbide askea izateari eta horietan aritzeari buruzko legera egokitzeko. 2009ko abenduaren 23ko BOE, 308. zk. 2009ko abenduaren 27an sartu zen indarrean.

4 17/2009 Legea, azaroaren 23koa, zerbitzu-jardueretan askatasunez sartu eta aritzeari buruzkoa. 2009ko azaroaren 24ko BOE, 283. zk.

5 2/1974 Legea, otsailaren 13koa, Profesionalen Elkargoei buruzkoa. 1974ko otsailaren 15eko BOE, 40. zk.



zehapen sinbolikoa ezarri zen, hots, euro bat elkargokide bakoitzeko. Ebazpenak zerbitzuariek ezartzeari lotutako jokabideak edonola errepikatzea debekatu zuen.

Zehatzeko ebazpena irmoa da.

C. Gipuzkoako HJAen Elkargoaren ebazpena. 188-SAN-2016 LEA/AVC espedientea (2017-05-30)

Bartzelonako elkargoan sartutako higiezin jabetzako agente batek Gipuzkoako Higiezin Jabetzako Agenteen Elkargoa salatu zuen ez ziolako erantzun elkargo horrek egiten dituen peritu-zerrendetan sartzeko bere eskaerari.

Zehapen-espedientea hasita, agirien bidez egiaztatu zen elkargoak salatzailea sartu egin zuela Gipuzkoako barruti judizialtako peritu judizialen zerrendetan, bai 2015. urterako bai 2016. urterako. Era berean, egiaztatu zen elkargoak ez zuela inolako bereizketarik ezartzen beste elkargo batzuetako kideekiko, ez dielako inolako diru-kopururik eskatzen ez bere kideei ez besteei. Era berean, elkargoaren estatutuak aztertuta ondorioztatu zen horietan ez zegoela lehiaren aurkako araurik (zerbitzu-sariei, derrigorrezko bisei, gaikuntzei, publizitaterako mugei eta abarri buruzkorik). Gai horien inguruko barne-araurik ere ez zen jasotzen.

Ondorioz, 2017ko maiatzaren 30eko ebazpenak adierazi zuen ez zela egiaztatu Gipuzkoako Higiezin Jabetzako Agenteen Elkargoak LBLren 1. artikulua inola ere hautsi zuenik.

Zehatzeko ebazpena irmoa da.

D. Arabako Graduatu Sozialen Kolegio Ofizial Prestuaren ebazpena. 187-SAN-(2016) LEA/AVC espedientea

2017ko ekainaren 27an, LEKek Arabako Graduatu Sozialen Kolegio Ofizial Prestuari 5.500 euroko isuna ezarri zion bere estatutuetan LBLren aurkako manuak edukitzeagatik.

Manu horiek lehia mugatzen duten alderdi hauek aipatzen zituzten: 1) kolegioak zerbitzuarien baremo orientagarriak ezartzeko ahalmena du; 2) kolegioko kideek ematen dituzten zerbitzuen publizitatea eskaeraren eta kolegioaren baimenaren menpe dago; 3) hasieran graduatu sozial bati agindutako gai baten berri izateko haien arteko ordezkapenerako, idatzizko baimena eta ordaintzeke dauden zerbitzu-sarien ordainketa behar dira; 4) kolegioak lanbidean aritzeko baldintzak ezarri ahal dizkie Arabako Kolegioaz besteko kideei.

Bizkaiko Psikologoaren Elkargoaren kasuan bezala, lehiaren agintaritzek Arabako Graduatu Sozialen Kolegioari jadanik ohartarazi zioten 2009. urtean kolegioaren estatutuen edukia legez kontrakoa zela. Hala ere, kolegioak ez zituen estatutuak aldatzeko beharrezko izapideak hasi lehiaren defentsari buruzko araudiaren aurkako manuak ezabatzeko edo aldatzeko, harik eta isun-zehapena ekarri zuen zehapen-prozedura hasi zela jakin zuen arte.

Gainera, LEKek 13.750 euroko isuna ezarri zion kolegioari Arabako graduatu sozialen zerbitzu profesionalengatik gutxieneko tarifak edo tarifa orientagarriak onartu, ezarri eta aplikatu zituelako.

Kolegioak jardun askean aritzen ziren graduatu sozialen zerbitzu-sari profesionalen tarifa orientagarriak onartu zituen 2012ko ekainaren 19an, kostuak tasatzeko eta kontuen zin egiteko ondorioetarako soilik.



LEA/AVCren ustez eta PELen laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorrituz, abokatuak elkargoen kostuak tasatzeko eta kontuen zin egiteko ondorioetarako soilik ezarri ahalko dituzte irizpide orientagarriak. Hala ere, Arabako Graduatu Sozialen Kolegioak graduatu sozialek ematen dituzten zerbitzu profesionaleko bakoitzaren gutxieneko zerbitzu-sarien tarifak edo tarifa orientagarriak onartu, ezarri eta aplikatu zituen.

Profesionalen elkargoen zerbitzu-sariak finkatzea zeharo debekatuta dago, kontsumitzaileen ongizatea eta babesa bermatze aldera. Elkargoen gutxieneko zerbitzu-sariak edo zerbitzu-sari orientagarriak ezartzen badituzte, profesionalei beren prezioak askatasunez eta kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta zehaztea eragozten diete eta zerbitzuen prezioak gorantz bateratzen dituzte.

Ebazpenaren aurkako errekurtsioa jarri zen EAEJANen, eta 2018ko otsailaren 15ean Arabako Graduatu Sozialen Kolegio Ofizial Prestuak aurkeztutako errekurtsioa baiesteko epaia eman zen⁶. Epaia horren aurkako kasazio-errekurtsioa prestatu da AGren aurrean.

E. EAEko eskola-jantoki publikoen ebazpena (II). 184-SAN-2016 LEA/AVC espedientea (2017ko urriaren 3a)

2016ko martxoaren 18an, COMERCIAL AIBAK TRS SLk AUZO LAGUN taldeko enpresen eta GASTRONOMÍA CANTÁBRICA SLren aurka aurkeztutako salaketa bat sartu zen Lehiaren Euskal Agintaritzaren erregistroan. Salaketaren arabera, enpresa horiek akordioak egin zituzten Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren menpeko zentro publikoen zuzeneko kudeaketako jantokietako otordu-zerbitzua kontratatzeko lizitazioa baino lehen (C02/010/2015 esp.), 11., 13., 14., 15. eta 17. loteetan.

Espedientean jasotako informazioa eta lizitatuak aurkeztutako eskaintzak zehatz-mehatz aztertu ostean, ezin izan zen egiaztatu merkaturako banatzeko akordio bat zegoenik, LBLren 1. artikuluan tipifikatzen denaren arabera, ezta LBLren 2. artikuluen aurkako nagusitasun-tokiaren abusu bat egin zenik ere. Beraz, LEA/AVCko Lehiaren Euskal Kontseiluak, 2017ko urriaren 3an, zehapen-prozedurarik ez hastea eta egindako eta bideratutako jarduketak artxibatzea ebatzi zuen.

Ebazpen hori irmoa da, horren aurkako errekurtsorik jarri ez delako.

F. Ogasun Mugiezinetakoa Ordezkarien Arabako Lanbide-Elkarteen ebazpena. 185-SAN-2016 LEA/AVC espedientea. (2017ko urriaren 31)

Bartzelonako elkargoan sartutako higiezin jabetzako agente batek Ogasun Mugiezinetakoa Ordezkarien Arabako Lanbide-Elkartea salatu zuen ez ziolako erantzun elkarte horrek egiten dituen peritu-zerrendetan sartzeko bere eskaerari.

Elkarteen aurkako zehapen-espedientea hasi arte, elkarteak ez zuen salatzailea sartu Arabako barruti judizialeko peritu judizialen zerrendetan.

Gainera, elkartearen estatutuak aztertuta, ondorioztatu zen horietan lehiaren aurkako arauak zeudela, baremo orientagarriei, derrigorrezko bisei, derrigorrezko tituluei eta abarri buruz.

⁶ LEA/AVC. Webgunea. Honako url helbide honetan eskuragarri: http://www.competencia.euskadi.eus/z02-contprof/es/contenidos/informacion/resoluciones/es_resoluci/resoluci.html. 2018-05-08an egin da kontsulta.



Ondorioz, LEKek zehatzeko ebazpen bat eman zuen, 2017ko urriaren 31n, Ogasun Mugiezinetakako Ordezkarien Arabako Lanbide-Elkartearen aurka, eta bi isun ezarri zituen: bata, 400 €-koa, elkartean berariaz debekatuta dauden eta lehiaren aurka egiten duten funtzioak dituzten estatutuak edukitzeagatik, eta bestea, 200 €-koa, salatzaileari elkarteko peritu-zerrendan sartzea eragozteagatik.

Ebazpen hori irmoa da, horren aurkako errekurtsorik jarri ez delako.

G. EAEko Premiazko Garraio Sanitarioaren Sarearen ebazpena. 26-SAN-2013 LEA/AVC espedientea. (2017ko azaroaren 21a)

MLBNk Larrialdiak.Net-Eulen ABEEK erakunde horretan jarritako salaketa baten berri eman zion LEA/AVCri. Salaketa Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailaren eta Osasun Sailaren aurkakoa zen, baita Ambuibérica SL eta Servicio Asistencia Médico Urgente SL enpresen aurka ere. Bertan, ustez LBLren kontra egin zuten jokabideak alegatu zituen, C02/036/2012 lizitazioaren adjudikazioari dagokionez. Lizitazio hori Euskal Autonomia Erkidegoko Premiazko Garraio Sanitarioaren Sarerako Osasun Larrialdietarako Laguntza eta Garraio Zerbitzuari buruzkoa zen. Salaketa horren harira, Ikerketa Zuzendaritza isilpeko informazioa izapidetzen hasi zen.

LEKen 2017ko azaroaren 21eko ebazpenean, adierazten da ez dela egiaztatu ebazpenean aztertutako lehiaketa publikoan lehiatu ziren enpresen artean lehia mugatzen zuten ekintza itunduak zeudenik (ezta gaur egun arte EAEn eremuan xede berbererako egin diren ondorengo lehiaketetan ere); beraz, salatutako jokabidea ez da sartzen, inola ere, LBLren 1. artikuluan.

Era berean, nabarmentzen da ez dela egiaztatu "galtzeko salmenta" edo "prezio harrapakariak" egon direnik; hortaz, kasu zehatzari ezin zaizkio LBLren 2. eta 3. artikulua ere aplikatu.

Horrenbestez, 2017ko azaroaren 21eko ebazpenak erabaki zuen zehapen-prozedurarik ez hastea eta izapidetutako isilpeko informazioaren esparruan egindako eta bideratutako jarduketak artxibatzea, arau-haustearen zantzu nahikoak daudenik egiaztatu ez delako.

H. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialari buruzko hiru ebazpen. LEA/AVC espedienteak: 74-2015 (Araba), 133-2015 (Bizkaia) eta 132-2015 (Gipuzkoa)

2017ko abenduaren 18an, LEKek Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako lurralde-ordezkaritzei irekitako espediente banaren amaiera itundua onetsi zuen, horiek kudeatutako lan-poltsen betekizunei eta funtzionamenduari dagokienez (eraikinen ikuskapen teknikoa eta energia-ziurtapenak, besteak beste).

Ordezkaritzek hartutako konpromisoek (araudi murriztailea ezabatzea eta lanbidean aritzeko betekizun guztiak betetzen duen arkitekto ororentzat irekita dauden eta eskatzen duen interesdun orori emango zaizkion zerrendak eratzea) antzemandako lehia-arazoak konpontzen dituzte.

I. Gipuzkoako bidaiarien garraioaren ebazpena. 130-SAN-2016 LEA/AVC espedientea

Lehiaren Euskal Agintaritzak autobusen sektoreko kartel bat, Gipuzkoako bidaiarien garraioan jardun zuena, desegin zuen.

Ikerketa 2015eko maiatzean hasitako zehapen-espediente batean oinarritzen zen, Ikerketa



Zuzendaritzak Gipuzkoako bidaiarienerrepideko garraioaren merkatuan arau-hauste bategon zitekeela jakin ostean. Hala, informazioaren azterketa zehatzak lehia-falta baten zantzuak eman zituen. Hori dela eta, aurrez abisatu gabe eta baimen judizialarekin, ikuskapenak egin ziren bederatzi operadore ekonomikoren egoitzetan, AVITRANS elkartearen egoitza barne, kartel bat egon zitekeelako frogak lortzeko xedearekin. Horretarako, LEA/AVCKo eta Ertzaintzako langileez gain, MLBNren, Andaluziako Batzordeko Lehiaren Defentsarako Agentziako, Autoritat Catalana de la Competenciako eta Consello Galego da Competenciako langileek ere lagundu zuten.

Azkenean, Lehiaren Euskal Kontseiluak, 2017ko abenduaren 27an, egiaztatutzat jo zuen AVITRANSen barneko enpresa-kartel batek gutxienez 1988. urteaz geroztik jarduten zuela Gipuzkoan, prezioak adostuz eta ibilbideak banatuz, bai lizitazio publikoetan bai kolektibo pribatuetan. Gainera, sistema bat ezarri zuten akordio horiek betetzearen kontra egiten zuten enpresei boikota egiteko. Jardunbide horiek eskaintzen zituzten zerbitzuak garestitzea ekarri zuten; ondorioz, erabiltzaileei kaltea egin zieten eta beste enpresa batzuentzat merkaturia itxi egin zuen. Horregatik guztiagatik, LEKek 17 enpresari eta AVITRANSi zehapenak ezartzea ebatzi zuen; haien guztizko zenbatekoa ia milioi bat euro izan zen.

Ebazpen hori ez da irmoa, zehatutako enpresek EAEJANen errekurtsua jarri dutelako.

4. MLBNri bidalitako auziak

Eskumenen Koordinazioari buruzko 1/2002 Legeak⁷ lehen artikuluan xedatutako esleipen-sistemarekin bat etorriz, 2017. urtean bost auzi bidali zaizkio MLBNri, jokabideek autonomia-erkidegotik goragoko eremu bati eragiten ziotelakoan.

5. Lankidetzaren Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Fiskaltzarekin

Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko 1/2012 Legearen 29. artikuluan eta Lehiaren Babesari buruzko 15/2007 Legearen 43. artikuluan xedatutakoaren arabera, lehiari buruzko zehapen-prozedurak ireki, horien instrukzioa egin eta ebaztean parte hartzen duten pertsona guztiek isilpean gorde beharko dituzte horiei buruzkoak. Betebehar bera du bere karguagatik edo lanbideagatik prozeduraren edukiaren berri duen pertsona orok, besteak beste, operadore ekonomikoek, LEA honek izapidetzen dituen zehapen-espedienteetan interesduntzat jotzen direnak.

2017ko azaroaren 6an, LEKek fiskaltzari jakinarazi zion isurtzeak egon zirela Gipuzkoako errepideko garraioaren kartelari buruzko zehapen-espedientearen instrukzioa egitean.

2017ko urriaren 26an, "El Correo" egunkariak izenburu hau zuen artikulua argitaratu zuen: "17 empresas de autobuses se han repartido el mercado en Gipuzkoa desde 1988". Artikulu horretan, adierazi zen "El Correo"k 131 orrialdeko ebazpen-proposamena ikusi ahal izan zuela, eta haren zati batzuk hitzez hitz kopiatu ziren. Gauza bera gertatu zen egun berean "El Diario Vasco" egunkarian argitaratutako albistearekin.

⁷ 1/2002 Legea, otsailaren 21ekoa, estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren babesaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzkoa. 2002ko otsailaren 22ko BOE, 46. zk.

Hurrengo egunean, 2017ko urriaren 27an, bai "El Correo"k bai "El Diario Vasco"k artikulu bana argitaratu zuten, non ebazpen-proposamenaren alderdi zehatz batzuk azpimarratu zituzten. Aipaturiko artikuluen edukiak agerian uzten zuten LEA/AVCk irekitako zehapen-espeditentean zeuden datuak eta agiriak isilpean gordetzeko eginbeharra urratu zela.

Ikerketa-eginbideak Bizkaiko Probintzia Fiskaltzari egokitu zitzaizkion.

Competencia concluye que 17 empresas de autobuses se han repartido el mercado en Gipuzkoa desde 1988



La investigación de Competencia ha puesto bajo la lupa el supuesto pacto de 17 empresas para repartirse el mercado de transporte de viajeros por carretera. / ARIZMENDI

Destapa un sistema «sofisticado» para fijar precios que incluía el «boicot» a las firmas que se saltaran las reglas. Exime a la Diputación y a Euskotren, así como a otras cuatro firmas, inicialmente investigadas en la actuación de oficio abierta hace 18 meses

6. LEA/AVCren defentsaren arloko jardueraren bilakaera


2017. urtean, Ikerketa Zuzendaritzak 41 espedientetan lan egin du, eta jarraian adierazten da zein egoeratan zeuden 2017-12-31n. Grafiko honetan, LEA/AVCk erakunde autonomo gisa abiatu zenetik izapidetutako espedienteak biltzen dira⁸.

Laugarren aldiko kopuruek 2015eko uztailetik 2016ko abenduaren 31ra artekoak hartzen dituzte barne, hau da, ia urtebete eta erdi, horregatik dira pixka bat altuagoak. Egiaztatu da espedienteen guztizko kopuruak etengabe gora egin duela.



Sektoreka, profesionalen elkargoak eta kontratazio publikoa gailentzen dira, eta bien artean 2017ko espedienteen erdia dira ia.

2017ko PROIEKTUEN SEKTOREAK



⁸ Laugarren urteko memoriaren datuek urtebete baino gehiagoko aldia jasotzen dute (2015eko uztailetik 2016ko abendura arte). Bosgarren urteko memoriak 2017. urte naturala hartzen du barne.

III. Lehiaren sustapena (Advocacy)

1. Txostenak

A. Elkargo eta kontseilu profesionaleri dagokienez

a. Bizkaiko Albaitarien Legezko Elkargoa. 10/22-PROM-2017 LEA/AVC espedientea. (2017ko martxoaren 9a)

LEA/AVCk Bizkaiko Albaitarien Legezko Elkargoaren estatutu-aldaketari buruzko txostena egin du. Bertan, adierazi du elkargoek lehiari buruzko arautegia bete behar dutela, estatutuak eta elkargoko beste arau batzuk (hala nola barne-araubideko erregelamenduak, ezarritako prozedurak eta arau deontologikoak) idaztean ez ezik jardunean aritzean ere. Hori dela eta, estatutuen testua kontuan izan gabe, elkargoak ez du lehia mugatzen duen erabaki edo gomendiorik ezarri behar, ezta horrelako betebeharrak edo eskakizunik ere, lehiaren babesaren arloko arau-haustea izan daitezkeelako. Albaitaritza-lanbidean lehia askeko araubidean jardun behar da eta erabat lotuta dago Lehiaren Babesari buruzko Legeari (LBL), lanbidera sartzeari (elkargo bakarreko kidea), zerbitzu-sariak zehazteari eta elkargoak zerbitzu-sariak kobratzeari dagokienez.

Lehiaren Euskal Agintaritzak Bizkaiko Albaitarien Legezko Elkargoaren estatutuen artikulua ugari ezabatzeraz edo aldatzeraz hertsatu du.

b. Bizkaiko Aseguru-Bitartekarien Elkargo Ofiziala. 10/21-PROM-2017 LEA/AVC espedientea. (2017ko maiatzaren 30a)

LEA/AVCk Bizkaiko Aseguru-Bitartekarien Elkargo Ofizialaren estatutu-aldaketari buruzko txostena eman du. Garrantzitsua da nabarmentzea aseguru-bitartekariak elkargokide bihurtzea borondatezkoa dela, ez lanbidean aritzeko betekizuna.

LEA/AVCren txostenak gogorarazten du aseguru-bitartekarien lanbidean aritzen direnek lehia askean aritu behar dutela eta Lehiaren Babesari buruzko Legea bete behar dutela erabat.

Bestalde, elkargoaren jarduketak, kideen interes korporatiboak defendatzeaz gain, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interesak ere babestu behar ditu, gizartearen interes eta premia orokorrekin bat etorritik.

LEA/AVCk adierazten du elkargoak ez duela lehia mugatzen duen erabaki, gomendiorik edo betekizunik ezarri behar, ezta "merkatua antolatu" ere, lehia babesteko legeriaren arau-haustea izan daitezkeelako. Hori dela eta, LEA/AVCk estatutuen bost manu aldatzeraz eta beste zortzi ezabatzeraz hertsatu zuen.

B. Txosten arauemaileak

a. Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren Dekretu Proiektuari buruzko txostena. 222-PROM- 2017 LEA/AVC espedientea (2017ko otsailaren 9a)

LEA/AVCk Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren Dekretuari buruzko txostena eman zuen. Dekretu horrek Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatze Legea (ekainaren 2ko 7/2016) garatzen du, Zerbitzu Juridikoa antolatuz eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalari ematen zaion laguntza juridikoa arautuz.



LEA/AVCk adierazi zuen dekretu-proiektuan aurreikusitako arauketak Euskal Autonomia Erkidegoko zerbitzu juridikoen merkatuari eragiten diola. Zerbitzu juridikoak dekretu-proiektuan arautzen den moduan emango balira, Eusko Jaurlaritzak Estatuko eta Europako eskumeneko lehiaren arauketaren menpe dagoen operadore ekonomiko gisa jardungo luke Zerbitzu Juridikoaren bitartez. Merkatuak ez luke inolako ondoriorik jasango baldin eta Zerbitzu Juridikoak, bere burua antolatzeko funtzioak garatzean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari erantzungo balio. Interes publikoaren defentsa gauzatzeko, barne-aholkularitzako funtzioetarako jarduera batzuk erreserbatzen dira, eta hura beharrezkoa eta egiaztatua izan daiteke.

Hala ere, Administrazio Institutuzionalari, Eusko Jaurlaritzaren partaidetza duten merkataritza-sozietateei eta beste administrazio batzuei ematen dizkienean zerbitzuak, hirugarrenei emandako zerbitzuak dira. Zerbitzu horiek eta elkargokide den edozein profesionalak merkatuan eman ditzakeenak berdin-berdinak dira, hura justifikatzen duen merkaturako akatsik ez badago eta murrizketa hori interes orokorreko helburu bat lortzeko beharrezkoa dela frogatu ez bada ere. Zerbitzu horiek hitzarmen-figuraren bidez antolatzen dira. Dena den, eman beharreko zerbitzuaren izaera eta horren truke ordaindu beharreko prezioa kontuan hartuta, ondorioztatu behar da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen menpeko zerbitzu-kontratu bat dela, ez administrazioen arteko hitzarmen bat.

b. EAEko eraikinen ikuskapen teknikoa eta ikuskapen teknikoen erregistroa arautzeko dekretu-proiektuari buruzko alegazioen gaineko txostena. 248-PROM-2017 LEA/AVC espedientea (2017ko azaroaren 21a)

Lehiaren eta merkaturaren arauketa eraginkorraren ikuspuntutik aztertu dira eraikinen ikuskapen teknikoen (EITen) araudia eta, zehazki, hori egiteko gaitutako pertsonen, haien betekizuneri eta betebeharrei eta profesionalen elkargoei eta elkarteekiko hitzarmenei buruzkoa.

Horrela, zehaztu da EITak egiteko jarduera arkitektoen eta arkitekto teknikoen alde gordetzea ez dagoela justifikatuta arauketa ekonomiko eraginkorraren printzipioen arabera. Gainera, zerbitzu profesional horien merkaturaren lehia eraginkorra modu larrian mugatzen du eta ez da ez beharrezkoa ez proportzionala.

Nolanahi ere, ez da interpretazio mugatzailerik egin behar EITak sinatzeko gaikuntza profesionala zehazteko. Hori dela eta, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari gomendatzen zaio ezen, erregelamenduzko garapenik ez dagoenez, ELOk aipatzen dituen tituluetak edozein daukaten profesionalak sinatu ahal izan ditzatela: arkitektoek, arkitekto teknikoek, ingeniariak eta ingeniari teknikoek. Era berean, gomendatzen da xedapen hori II. eranskinean jasotzea, non pertsona fisikoei eta juridikoei EITak egiteko eskatu behar zaizkien betekizunak zehazten diren, baita erantzukizuneko adierazpenaren ereduaren ere. Azkenik, profesionalen elkargoen eta araua proposatzen duen sailaren arteko lankidetzak ezingo du barne hartu horiek EITen zerbitzuak egitea.

Gaur egun dekretu-proiektua oraindik ez denez onartu, txosten osagarri bat egin da.

c. Bilboko Hiri Antolaketarako Plan Orokorraren aldaketa xehetuari buruzko txostena, turismo-ostatuaren erabilera arautzeari dagokionean. 251-PROM-2017 LEA/AVC espedientea (2017ko abenduaren 18a)

2017ko urriaren 31n, iragarki bat argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Bilbo Hiriko

Gobernu Batzarraren 2017ko urriaren 25eko erabakiaren berri emateko. Erabaki horren bidez, hasieran onartu zen Bilboko Hiri Antolaketarako Plan Orokorren (HAPO) aldaketa xehetua, turismo-ostatuaren erabilera arautzeari dagokionean, Bilboko udal-mugartean turismo-ostatuaren ekipamendu berriak ezartzeko lizentziak emateari utzi zitzaion eta jendea informatzeko aldia hasi zen.

Horren berri izan ostean, LEA/AVCk txostena eman zuen. 2017ko abenduaren 18an onetsi zen, eta bertan adierazi zen 1995az geroztik indarrean dagoen HAPOk ez beharrezkoak ez proportzionalak ez diren sarrera-langak ezartzen dituela nagusiki bizitegi-erabilera duten eraikinetan edozein motatako jardura ekonomikoa egiteko. Aldi berean, toki pribilegiatua ematen die tartean dauden operadoreei eta pribilegioa ematen die jardura ekonomikoa egitea ahalbidetzen den solairuetan dauden etxebizitzetako jabeei edo maizterrei, gainerako solairuetan dauden etxebizitzetako jabeekin edo maizterrekin alderatuta, horiek ezin baitute inolako jardura ekonomikorik egin.

Era berean, txostenak ondorioztatu zuen HAPOren aldaketak ez duela zuzentzen nagusiki bizitegi-erabilera duten eraikinetan edozein motatako jardura ekonomikoa egiteko egoera murriztailea; aitzitik, ez beharrezkoak ez proportzionalak ez diren sarrera-langak ezartzen dizkio turismo-erabilerarako etxebizitzak ustiatzeko jardura ekonomikoaren merkatuari, nahiz eta EAeko Turismoaren Legeak jardura hori baimendu. LEA/AVCren aburuz, jabeekideen erkidegoak dira bertan jardura ekonomikoa mugatzeko edo debekatzeko erakunde egokienak, horien ondorioz eragozpenak sortzen badira edo auzotarren arteko bizikidetzak nahasten bada, Jabetza Horizontalari buruzko Legean ezarritako prozedurari jarraikiz.

C. Kontratazio publikoaren inguruan

a. Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailaren eta Jabetza eta Merkataritza Erregistratzaileen Elkargoaren arteko zerga-arloko lankidetzak-hitzarmenari buruzko txostena. 52-PROM-2017 LEA/AVC espedientea. (2017ko abenduaren 18a)

Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak (foru-ogasunak) lankidetzak-hitzarmen bat izenpetua du Jabetza eta Merkataritza Erregistratzaileen Elkargoarekin (elkargoa), zerga-arloan lankidetzan aritzeko esparru orokor bat ezartzen duena.

LEA/AVCk aztertu du foru-ogasunak lankidetzak-hitzarmen horren bitartez lehia askea alboratu duen, Bizkaiko hipoteka-barrutiko likidazio-bulegoei esleitzen baitie sozietateen gaineko zergaren eta ondare-eskualdaketen gaineko zergaren kudeaketa, likidazioa eta borondatezko bilketako zerbitzuak ematea.

Horri dagokionez, LEA/AVCk adierazi du foru-ogasunak daukala tributu itunduak aplikatzeko eskumen eskusiboa Bizkaiko Lurralde Historikoan eta zergen kudeaketa, likidazioa, bilketa eta ikuskaritza egiteko ahal publikoak gauzatzen dituela eskumen hori dela medio. Sozietateen gaineko zergari eta ondare-eskualdaketen gaineko zergari dagokienez, zergen kudeaketa, likidazioa eta borondatezko epearen barneko bilketa egiteko ahalmenak organo espezifikoaren eta jabetza-erregistratzaile bat buru duten likidazio-bulegoen bitartez gauzatzen ditu.

Tributuak aplikatzeko egintzek eta prozedurek berekin dakartzate foru-ogasunak funtzionario publikoen bitartez gauzatu behar dituen aginte-egintzak eta, ondorioz, ezin dituzte merkatuko enpresek eman, sektore publikoko kontratuak arautzen dituen araudiak



berariaz baztertzen dituelako. Likidazio-bulegoak Administrazioaren organoak dira eta funtzionario publiko bat da horien buru: kasuko jabetza-erregistratzailea.

Horrela, LEA/AVCk ondorioztatu du lankidetzeta-hitzarmenak, likidazio-bulegoei eragiten dien aldean, zerga-arauketak esleitutako ahal publikoak gauzatzeko baldintzak ezartzen dituela eta baldintzok ezin dutela eraginik izan lehian, merkatuko enpresek ezin dituztelako eman.

b. Bilboko Udalaren eta Metropoli Fundazioaren artean sinatutako negozio juridiko jakin batzuei buruzko txostena. 92-PROM-2017 LEA/AVC espedientea. (2017ko maiatzaren 30a)

Bilboko Udalak eta zenbait udal-erakundek lehia askea eragotzi zuten hitzarmenak sinatu zituzten 2010. eta 2014. urteen bitartean diru publikoko 1.475.000 € adjudikatzean. Txostenak adierazten duenez, kontratazioari buruzko araudiak administrazioei tresna nahikoak eskaintzen dizkie beren beharrak erabateko eraginkortasunez betetzeko, aldi berean operadoreen arteko aukera-berdintasuna bermatzeari utzi gabe.

Aztertutako negozioetan, prezio baten truke ematen diren zerbitzuen kontraprestazioa dago; beraz, kontratutzat jo behar dira, ez hitzarmen edo dohaintzat. Negozio horien edukia ez du frogatzen Metropoli Fundazioa Administrazioak ezarritako helburuak betetzeko gai den "erakunde bakarra" denik.

Negozioak fundazio batekin sinatu arren (hortaz, ez luke irabazteko asmorik edukiko), erakundearen kontuen analisiak agerian jartzen du ia haren jarduera osoa merkataritzakoa dela. Publikotasun- eta norgehiagoka-printzipioak funtsezkoak dira interes orokorra bermatzeko. Hori dela eta, administrazioek printzipio horiek saihesten dituzten kontratazio-era desegokietara jotzea ekidin behar dute zorrozki.

D. Beste batzuk

a. Gasteizko txandakako aparkaleku publiko jakin batzuen doakotasunari buruzko txostena. 96-PROM-2017 LEA/AVC espedientea. (2017ko martxoaren 9a)

Arabako Enpresen Sindikatuak (SEA Arabako Enpresak) kontsulta bat egin zion LEA/AVCri: ea lehiarekin bateragarria den Gasteizko Udalak (udala) erabiltzaileei doako egonaldia eskaintzea data zehatzetan Gasteizko Zabalguneko eta Alde Zaharreko aparkaleku jakin batzuetan bakarrik.

Udalak Iradier Arenako txandakako aparkaleku-plazak edozein erabiltzaileraren esku jarri ditu, doan, 2013ko, 2014ko, 2015eko eta 2016ko abenduaren eta urtarrilaren egun berezietan. Era berean, TAO txartela duten Alde Zaharreko auzotarren esku jarri ditu, doan, Artiumeko txandakako aparkaleku-plazak 2014ko, 2015eko eta 2016ko Erdi Aroko azoka egin denean. Aparkaleku horiek udalak kudeatzen ditu zuzenean, TUVISA bere bitartekoaren bidez.

Erdi Aroko azokari dagokionez, TAO txartela ordaindu duten Alde Zaharreko auzotarrek ezin dute bide publikoan aparkatu. Horregatik, udalak aparkaleku batean doan aparkatzea ahalbidetzen die, konpentsatzeko. Udalaren helburua ekonomikoa ez den xede publiko bat da eta ezin da zalantzan jarri. Hala ere, neurrian parte hartzeko aukera Alde Zaharretik hurbil dauden aparkaleku guztietara zabalduko balitz, dudarik gabe herritarrentzako abantaila sortuko litzateke eta ematen zaien arreta hobetuko litzateke.

Gabonetako kanpainari dagokionez, udalaren lehen helburua Zabalguneko eremuan



merkataritza eta ostalaritza dinamizatzea da. Neurri horren bidez, udalak portaera-ereduak sustatzen ditu kontsumitzaileek hiriko eremu zehatz batean egin ditzaten erosketak, gainerako merkataritza- eta ostalaritza-egituraren kalterako; horrek Administrazioaren jarduketara zuzendu behar duen neutraltasunaren kontra egiten du.

Gainera, neurriak udalak zuzenean kudeatzen duen aparkalekua soilik doan erabiltzea ahalbidetzen du. Dena den, ez dago frogatuta merkataritza-eremutik hurbilago dauden aparkaleku batzuei udalak neurrian parte hartzeko aukera eskaini dienik, eta ez dago udalaren erabakia justifikatzen duen interes orokorreko beste arrazoirik. Azken disfunczio hori neurria eragin-eremuko aparkaleku guztietara zabalduz konponduko litzateke.

b. Obra handietako eraikuntza- eta eraispin-materialen eta hondakinen kudeaketari buruzko txostenaren egiaztapenaren inguruko txostena. 113-PROM-2017 LEA/AVC espedientea. (2017ko martxoaren 9a)

LEA/AVCk arkitekto batek egindako kontsultari buruzko txosten bat eman du. Arkitektoaren arabera, bateraezina zen Eusko Jaurlaritzak (EJ) profesionalen elkargoen alde egin duen esleipena obra handietatik datozen eraikuntza-materialen eta hondakinen kudeaketari buruzko amaierako txostenak egiaztatzeko ahalmenarako.

Eraikuntza-obra handi batean hondakinak sortzen direnean, ekoizleak Administrazioaren aurrean egiaztatu behar du haien kudeaketa egokia izan dela. Horretarako, EJren araudiak ezartzen du obraren zuzendaritza fakultatiboak hondakinen kudeaketari buruzko txosten bat egin behar duela eta hirugarren batek egiaztatu behar duela txosten hori. Kudeaketari buruzko txostena egiaztatzeko ahalmena ingurumen-lankidetzako erakundeei (ILE) esleitu zizkien EJK 2012an; erakundeei betekizun teknikoak eta gaitasunekoak betetzeko eskatzen zien. Horrela, obra handiko eraikuntza-hondakinen ekoizleak, hondakinen kudeaketa zuzena egiaztatzeko, obraren zuzendari fakultatiboaren txostena eta ILE batek egindako egiaztapena aurkeztu behar zituen Administrazio Publikoan. Kontsultaren eskatzailea ILE da.

EJK, 2013. urtean, aldi baterako eten zuen obra handiko sustatzaileak kudeaketari buruzko txostenak ILE-en bidez egiaztatzeko zuen betebeharra, eta arloan eskumenak zituzten profesionalen elkargoei agindu zien, elkargokide izateko behar diren tituluez bestelako betekizunik eskatu gabe. Esleipen eskusibo horrek enpresei edo profesionaleri merkatua ixten die eta merkatuan disfunczioak eta erabiltzaileen interesetan kalteak sortzen ditu. Gainera, EJK, bere webgunearen bidez, kudeaketari buruzko txostenak egiaztatzen dituzten elkargoak (9) zehaztu ditu, eta zerrenda horretan ez daude arloa dela medio gaitutako guztiak.

Txostenak ondorioztatzen duenez, jarduera ekonomikoetarako sarbide askea bermatzeko, EJK obra handiko hondakinen kudeaketan hondakinen kudeaketari buruzko amaierako txostena egiaztatzeko eskatzeko beharra balioetsi behar du. Beharra egiaztatuz gero, arauketa eraginkorra egin behar du, arauketa onaren printzipioak errespetatuz, hau da, zerbitzua emateko langa desegokirik ezarri gabe eta horrek obraren kostuaren gehikuntza bidegaberik ez ekartzeko eskatuz.

Hondakinen kudeaketari buruzko amaierako txostena egiaztatzeko eskatu bitartean eta arauketa aldatu arte, zerbitzu horiek elkargoetara mugatzeak Administrazioak saihestu behar dituen lehia-arazoak sortzen ditu eta, hortaz, horrek egiaztapena bere baliabideen bitartez egitea gomendatzen da.



Aurreko ondorioa posible ez den heinean, Administrazioak bermatu behar du gaitutako profesional orok zerbitzua eman dezala. Ezin zaio jada egiaztatuta dagoen ILE bati edo zerbitzua emateko gaitasuna eta independentzia egiaztatzen duen beste profesional bati eragotzi.

c. CECOBik antolatutako Bonodekor kanpainei eta BFaren finantzaketari buruzko txostena. 197-PROM-2017 LEA/AVC espedientea. (2017ko apirilaren 11)

LEA/AVCk txosten bat egin zuen Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioak (CECOBI) 2012tik 2016ra arte Bizkaiko etxeko altzarien eta ekipamenduen sektorean kontsumoa sustatzeko antolatu zituen kanpainei buruz. Kanpaina horiek Bizkaiko Foru Aldundiaren (BFA) finantzaketa eduki dute.

Kanpaina horietan, kontsumitzaileek, banku-erakunde bakar bateko kutxazainetan bonu bat erosiz, saltoki atxikietan deskontuak izan zitzaizkiren. Saltoki horiek enpresa txiki eta ertainak (ETEak) izan eta nagusiki produktu horiek merkaturatzen jardun behar zuten. Deskontua saltoki atxikiak zehaztutako etxeko altxarien eta ekipamenduen erosketa-prezioaren gainean aplikatzen zen. Beste erakunde batzuetako txartelak zituzten bezeroek bonua eskuratu zezaketen, baina bonuaren kostuaren % 18ko komisio bat ordainduz. Kanpainen parte hartzeko, CECOBiko kideek kide ez zirenek ordaindutakoaren erdia ordaindu behar zuten.

Kanpainan parte hartzen zuten merkatariek ordaintzen zuten bezeroei egindako deskontua. Era berean, parte hartzen zuten saltoki guztiek kanpainak babestutako produktuak, hornitzaileak eta are prezioak helarazi behar zitzaizkiren CECOBiri, erosketa-fakturak helarazi behar zituzten eta. Azkenik, kanpaina horiek ezin zuten bat egin enpresa parte-hartzaileen beste sustapen komertzial batzuekin.

LEA/AVCk adierazi du CECOBik BFaren finantzaketarekin antolatutako kanpaina horiek operadoreen arteko bereizkeriak eta enpresa parte-hartzaileen lehiarako mugak ekarri dituztela, (i) enpresa parte-hartzaileei gehieneko deskontuari buruzko politika komertzial bakarra ezartzeagatik, (ii) sustapenak eta zerbitzuak metatzea debekatzeagatik eta (iii) enpresa parte-hartzaileak CECOBiri merkataritza-sekretutzat jotzen den informazioa bidaltzera behartuta egoteagatik.

Azkenik, gogorarazi du BFAk merkatuetan jarrera neutrala izan behar duela eta, merkatuetan esku-hartzen badu, operadore ekonomikoen arteko lehia askeko eta berdintasunezko baldintzak ezartzeko izan behar duela.

d. Eibarko Herritar Txartelari buruzko txostena. 241-PROM-2017 LEA/AVC espedientea. (2017ko maiatzaren 30a)

Eibarko Udalak kontsulta bat aurkeztu zion LEA/AVCri, Eibarko Dendarien Elkarteak egindako proposamen bati buruzkoa. Proposamen horretan, hitzarmen bat egitea planteatzen zen ("Eibarko Herritar Txartela"), elkarte horren Visa txartelaren ("Eibar Txartela") funtzionaltasunak eta udal-zerbitzuak (liburutegia, kiroldegia eta abar) bateratuko lituzkeen txartel bat sortzeko.

2017ko maiatzaren 30ean, LEA/AVCk txostena egin zuen. Horren arabera, udalaren eta dendarien elkartearen arteko hitzarmen hori sinatzea ez zen ez beharrezkoa, ez egokia, ez proportzionala, zuzendu beharreko merkaturako akatsik ez zegoelako, ezta udalaren esku-



hartzearen bidez erdietsi beharreko interes orokorreko helbururik ere.

Halaber, ondorioztatu zuen Eibarko Herritar Txartelaren bidez udalak bere administrazio-jarduketara udalerriko enpresa pribatuen elkarte bati lotuko liokeela, Eibar udalerriko gainerako enpresa pribatuen kalterako; beraz, Eibarko txikizkako merkataritzaren merkatuan esku hartuko luke eta, horrela, hura desitxuratuko luke eta enpresa batzuk beste batzuk baino toki hobean kokatuko lituzke. Era berean, Eibar udalerriko banku-txartelen merkatuan esku hartuko luke eta, hori dela-eta, merkatu hori desitxuratuko luke, gaur egun Eibar Txartela jaulkitzen duen finantza-erakundearen mesedetan.

e. Eskola-uniformeen eta eskola-materialaren banaketako lehiaren gaineko eraginari buruzko txostena. 81-PROM-2017 LEA/AVC espedientea. (2017ko ekainaren 27a)

Hezkuntzari zuzenean edo zeharka lotuta dauden eta ikastetxeek eska ditzaketen zenbait merkatu aztertu dira: uniformeak; kirol-arropak, batak edo beste jantzi batzuk; liburuak, libretak edo eskola-materiala; ordenagailuak, tabletak edo beste tresna batzuk. Eskakizun horretan, ikastetxeok operadore ekonomiko gisa dihardute eta, beraz, lehiari buruzko araudiaren menpe daude.

Ikastetxearen identifikazioa duten eta marka erregistratua edo industriaren arloan babestutako marka duten jantzien erabileraren ondoriozko arazoetan jarri da arreta nagusia. Zehazki, besteak beste, banaketa-moduak eta ondoriozko royalty direlakoak aztertu dira. Gainera, jardunbide horien ondorioz lehiarako sor daitezkeen murrizketak azpimarratu dira, lehiaren aurkako akordioak zein nagusitasun-tokiaren abusuak direla eta.

Nolanahi ere, ikastetxeen jardueraren helburuak ikasle eta familientzako baldintzak hobetzea izan behar du beti, haien hautatzeko gaitasunari kalterik egin gabe. Testuinguru honetan, erosketa-ahalmena baliatzea onargarria da baldin eta ikasle guztien onerako bada.

Azkenik, txostenak ikastetxeentzako "jardunbide egokien dekalogo" jasotzen du.

f. "10+ MERKATARITZA BONUA" laguntza-programari buruzko txostena. 257-PROM-2017 LEA/AVC espedientea. (2017ko azaroaren 27a)

Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak LEA/AVCri eskatu zion sail horrek merkataritzarako ematen dituen laguntzen programari, "10+ Merkataritza Bonua" delakoari, buruzko txostena egiteko.

Programa horretan, 20 €-ko bonu bat sortzen zen, eta horrek ETE ziren EAEko establezimenduetan 30 €-ko erosketa egiteko eskubidea ematen zuen. Ondorioz, kontsumitzaileek 10 € jasotzen zituzten, Eusko Jaurlaritzak ordainduta. Pertsona bakoitzak gehienez 20 € (2 bonu) eskuratu ahal zituen.


LEA/AVCk, 2017ko azaroaren 27an, txostena egin zuen. Horren arabera, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak behar bezala justifikatu zuen "10+ Merkataritza Bonua" programa beharrezkoa, egokia eta proportzionala zela hiri-inguruneetan merkataritza-jarduera dinamizatzeko eta EAEko txikizkako saltokien kopuruaren beherakada geldiarazteko. Hala ere, ohartarazi zuen erakunde laguntzaileak kudeaketa-jarduerak koordinatzeko eta diru-laguntzaren funtsak banatzeko jarduera garatu behar zuela.

E. LEA/AVCren sustapenaren arloko jardueraren bilakaera

2017. urtean, LEKek 33 txosten egin ditu sustapenaren arloan, eta beste 15 espediente

erabakitzen eta aztertzen ari da. Jarraian, LEA/AVCk erakunde autonomo gisa abiatu zenetik izapidetutako sustapen-txostenen kopurua grafikoki irudikatzen da⁹.


LEA/AVCk IZAPIDETUTAKO TXOSTENEN KOPURUA



Egiazta daitekeen moduan, txostenen kopuruak etengabe gora egin du, kontuan izan behar baita 4. aldia ia urtebete eta erdikoa izan zela. Era berean, nabarmendu daiteke prestatzen ari diren txostenen kopurua jaitsi egin dela; beraz, ondorioztatzen dugu horiek aztertu eta prestatzen direnetik emateko epeak laburtu direla.

Hona hemen 2017. urteko sustapen-txostenen kopurua, sektoreka sailkatuta:

SUSTAPENKO PROIEKTUEN KOPURUA



Berrito ere, profesionalen elkargoen eta zerbitzuen sustapen-txostenak gailentzen dira.

⁹ Laugarren urteko memoriaren datuek urtebete baino gehiagoko aldia jasotzen dute (2015eko uztailetik 2016ko abendura arte). Bosgarren urteko memoriak 2017. urte naturala hartzen du barne.


2. Kontsultak

LEA/AVCk jarraitu du herritarrek eta operadore ekonomikoek postaz, telefonoz, posta elektronikoz —*Infocompetencia@avdc.es* helbidearen bitartez— edo aurrez aurre egindako kontsultei erantzuten.

Berrikuntza gisa, salmenta ibiltariari buruzko kontsultak nabarmentzen dira, hau da, udalak direla-eta saltzaile ibiltari batzuek jaietan egiten diren tokiko azoketan beren jardueran aritzeko dituzten zailtasunei buruzkoak, baita turismo-erabilerarako etxebizitzetara eta Sektore Publikoko Kontratuen Lege berriari, 2018ko martxoaren 9an indarrean sartu zenari, buruzkoak ere¹⁰.

Kontsultak askotarikoak izan dira, baina sektore batzuk errepikatu dira, hala nola administrazio publikoa eta profesionalen elkargoak.

Eskari horiei esker, LEA/AVCk administrazio publikoko, merkatuetako eta gizarteko lehiagabezien berri izaten du. Batzuetan, kontsulta horien ondorioz lehiaren sustapenari buruzko txostenak egin dira, ikuspegi orokorrago batetik.



2017ko legegintza-mugarriak

A. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/104 (EB) Zuzentarauaren transposizioa, 2017ko maiatzekoa

2017ko maiatzaren 27an, Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) maiatzaren 26ko 9/2017 Errege Lege Dekretua argitaratu zen; horren bidez, besteak beste, Europar Batasunaren 2014/104 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egin zen, lehiaren zuzenbideko arau-hausteengatik kalte-ekintzak egikaritzearen arloan. Bosgarren xedapen gehigarriaren arabera, lege-dekretua argitaratu zen egunean sartu zen indarrean.

¹⁰ 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena; horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora. 2017ko azaroaren 9ko BOE, 272. zk.



Errege lege-dekretuak zuzentaruaren funtsezko arauak sartzen ditu Lehiaren Babesari buruzko Legearen (LBL) titulu berri batean, lehia mugatzen duten jardunbideen ondoriozko kalteen konpentsazioari buruzkoan. Bost urteko preskripzio-epea ezartzen da. Gainera, prozedura-kontuak gehitzen ditu Prozedura Zibilarren Legean (PZL). Azkenik, zuzentaruaren definizioei dagokienez, errege-dekretuak LBLren laugarren xedapen gehigarria aldatu eta zabaldu egiten du¹¹.

B. Sektore Publikoko kontratuen Legearen (azaroaren 8ko 9/2017) argitalpena

2017ko azaroaren 9an, Sektore Publikoko Kontratuen Lege berria¹² BOEn argitaratu zen, eta 2018ko martxoaren 9an indarrean sartu da.

3. Gazteen arteko lehia

A. Unibertsitatea

Abokatutzaren Jarduerako Masterra (Deustu)

2017ko otsailean, LEA/AVCko lehiako arduradunak, Guillermo Aranzabek, Lehiaren Zuzenbidea irakasgaia eman zuen Abokatutza Jarduerako 2016/2017ko unibertsitate-masterrean, euskaraz. 6 ordu iraun zuen, 3 egunetan banaturik. Era berean, 2017ko azaroan, irakasgai bera eman zuen Abokatutza Jarduerako 2017/2018ko unibertsitate-masterrean.

LEA/AVCren ustez, ezinbestekoa da euskal abokatuen promozio berriek trebakuntza sakona izatea lehiaren zuzenbidearen arloan. Horrek, enpresa eta profesionali emandako aholkularitza juridikoaren bitartez edo lehiaren kontrako jardueren salaketaren bitartez, EAEko merkatuetako lehia askearen egoera hobetzea ekarriko du eta, ondorioz, euskal herritarren ongizatea areagotuko du.

LEA/AVCko praktika-programa

Zenbait unibertsitateekin lankidetzaz hitzarmenak sinatzeari esker, LEA/AVCk lehia etengabea duten eremuetako etorkizuneko profesionalen artean lehia askea sustatzeko aukera izan du. Gainera, ikasleek LEA/AVCn egiten den lana zuzenean ezagutzeko aukera izan dute, agintaritzaren eguneroko lanean trebakuntza praktikoa berenganatuz. LEA/AVCk lana, ahalegina eta ardura eskertzen die horiei guztiei. Hona hemen unibertsitate-ikasleen jatorria eta kopurua:

- Deustuko Unibertsitatea: 14 ikasle (Zuzenbidea, Zuzenbidea + Ekonomia Espezialitatea Gradu Bikoitza, Zuzenbidea + Nazioarteko Harremanak, EAZ).
- Cátedra Unescoren eta Deustuko Unibertsitatearen doktorego aurreko beka: 3 (Zuzenbidea).
- UPV/EHU: 3 (Zuzenbidea, Industria Antolakuntzaren Ingeniaritza).
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa: 1 (Zuzenbidea).
- Karlos III.a Unibertsitatea: (Zuzenbidea + Politikako eta Administrazio Publikoko Zientziak gradu bikoitza).

¹¹ 9/2017 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 26koa, Europar Batasuneko zuzentaruaren transposizioa egiten duena finantza-, merkataritza- eta osasun-eremuetan eta langileen lekualdaketari buruzkoa. 2017ko maiatzaren 27ko BOE, 126. zk.

¹² 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena; horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentaruaren transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora. 2017ko azaroaren 9ko BOE, 272. zk.

B. Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeak: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa

LEA/AVCk unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan ere lehia sustatzen jarraitu du. 2016-2017ko ikasturtearen hasieran, gutun bana bidali zien ikastetxeei, lehia askearen printzipioei buruzko trebakuntza jasotzeko aukeraren berri emate aldera. Hitzaldiak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez eman dira.

LEA/AVCren hitzaldien edukia oso ondo osatzen da ikastetxeek Ekonomia irakasgaiari azalduz, lehiaren aurka egin daitezkeen moduak eta horrek herritarren eguneroko bizitzan dituen ondore kaltegarriak egiaztatzeko kasu errealak azalduz.



2016-2017 ikasturtean, hamazortzi ikastetxe publiko eta itundutako hogeita zazpi ikasle-talderi eman zaie trebakuntza. Hauexek dira:

1. PASAIA-LEZO LIZEOA HLBHIP (LEA/AVCren egoitzan emandako hitzaldia)
2. CPEIPS LARRAMENDI IKASTOLA HLBHIP (Mungia)
3. IES BEURKO BHI (Barakaldo)
4. PEDAGÓGICA SAN PRUDENCIO HLBHIP (Vitoria-Gasteiz)
5. LA INMACULADA-HIJAS DE JESÚS HLBHIP (Bilbo)
6. CPEIPS KIRIKIÑO IKASTOLA HLBHIP (Bilbo)
7. CPEIPS LAUDIO IKASTOLA HLBHIP (Laudio)
8. IES MUTRIKU BHI (Mutriku)
9. CPEIPS USABALGO LASKORAIN IKASTOLA HLBHIP (Tolosa)
10. CPEIPS ASKARTZA CLARET HLBHIP (Leioa)
11. BISITA. IES BOTIKAZAR BHI (Bilbo)
12. HAZTEGI IKASTOLA HLBHIP (LEGAZPI)
13. CPEIPS CARMELITAS-SAGRADO CORAZÓN HLBHIP (Bilbo)
14. IES SOLOKOETXE BHI (Bilbo)
15. CPES XABIER BHIP (Portugalete)
16. CPEIPS SAN JOSE-JESUITAK HLBHIP (Durango)
17. IES GABRIEL ARESTI BHI (Bilbo)
18. IES BEASAIN BHI (Beasain)



4. LEA/AVCk antolatutako biltzarrak

A. Lehiarako eskubidea urratzearen ondoriozko kalteen erreklamazioei buruz antolatutako jardunaldia

LEA/AVCk eta Pérez-Llorca bulegoak, "'Antitrust' arau-haustek eta kalteen erreklamazioak" biltzarra eskaini zuten maiatzaren 11n Deustuko Unibertsitatean.

Hizlariak bi ordu baino pixka bat gehiagoz mintzatu ziren lehiaren arloko azken joeretan interesatuta dauden eta Deustuko Unibertsitateko Garate aretora joan ziren ehun ikasle eta profesional baino gehiagorekin.

Lehiaren zuzenbidearen aplikazio pribatuaren berrikuntzak azaldu ziren, baita Europako arauak kalteen erreklamazioetan dituzten eraginak ere. Biltzarra amaitzeko, ikusleen eta hizlarien arteko eztabaida bat egin zen, non araudiaren aplikazio praktikoaren zenbait alderdi jorratu ziren.

5. LEA/AVCren webgunea

LEA/AVCren webgunea herritarrekin komunikatzeko funtsezko kanalada. Webgunean tresnak jarri dira, hala nola inprimakiak eta postontzi elektronikoak, enpresek, administrazioek edo herritarrek lehiaren aurkako jardueren inguruko kontsultak egin, eta horrelako jarduerak jakinarazi edo sala ditzaten. Bide horretatik ikerketak abiarazi eta espedienteak ireki dira.

Gure webgunea, berez, gardentasuna, partaidetza eta lankidetzaren sustatzeko gobernamendu egokirako tresna praktikoa da.

Gure argitalpenen erabateko gardentasuna nabarmentzekoa da, gure jardueri buruzko informazioa eta datuak denbora errealean ematen ditugu eta.


Gainera, parte hartzeko bide bat da, herritarren proposamenak bideratzeko bitarteko egokiak baitauzka.

Hona hemen webguneari buruzko 2017. urteko informazioa (iturria: Google Analytics), bisiten kopurua finkatu dela baieztatzen duena:



VISIÓN GENERAL DE LA AUDIENCIA

● **Sesiones**



Usuarios

18.099



Usuarios nuevos

18.056



Sesiones

21.942



Número de sesiones por usuario

1,21



Número de visitas a páginas

47.262



Páginas/sesión

2,15



Duración media de la sesión

00:01:37




Porcentaje de rebote

67,99%



Idioma	Usuarios	% Usuarios
1. es	9.203	50,52%
2. es-es	3.564	19,56%
3. es-419	3.422	18,78%
4. en-us	609	3,34%
5. es-mx	234	1,28%
6. ru	133	0,73%
7. es-us	131	0,72%
8. es-xl	110	0,60%
9. ca	79	0,43%
10. eu	71	0,39%



■ New visitor
■ Returning visitor

IV. Aurkaratzea

1. Bilboko Uri Zaharraren Berregokipenerako Egitamu Bereziaren aldaketa

LEA/AVCk administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen Bilboko Udalaren osoko bilkuraren 2016ko ekainaren 30eko erabakiaren aurka. Horren bidez, Uri Zaharraren Berregokipenerako Egitamu Bereziaren aldaketa behin betiko onestea erabaki zen; aldaketa hirigintza-erabilera batzuen araubide berri bat ezartzean zetzan, besteak beste ostalaritzari zegokionez, zonakatze berria ezarriz eta horren arauketan aldaketa egokiak eginez, batez ere, haren hirigintza-arauen I. kapituluan, Hiri Plangintzarako Sailak egindako testuarekin bat etorritz.

LEA/AVCren ustez, errekurtsoa jarri zion plan bereziak zerbitzuak emateko askatasunaren eta kokatzeko askatasunaren aurkako mugak ezartzen zituen; mugek ostalaritzako, autozerbitzuko elikagaien eta jolas eta aisialdiko establezimenduei eragiten zieten, baita finantza- eta aseguru-erakundeei ere.

Planaren aldaketak onartutako mugen azterketaren arabera, helburuak soilik sektorialak edo ekonomikoak ziren, adibidez, merkataritza-orekako eredu jakin bat lortzea edo horri eustea, jarduera ekonomiko jakin batzuk ezartzeko langak ezarriz, eta azalpen-memorian ez zen zehazki analizatzen zergatik ziren onartutako mugak helburu horiek lortzeko beharrezkoak eta egokiak.

LEA/AVCren aburuz, hirigintzari eta ingurumenaren babesari soilik heltzeak ezin zuen saltzeko, kokatzeko eta zerbitzuak emateko askatasunen mugaketa justifikatzeko balio.

2018ko urtarrilaren 29ko epaiak hein batean baietsi zuen LEA/AVCk jarritako errekurtsoa, kreditu-erakundeen eta aseguru-konpainien arteko distantzien arauketari buruzko artikulua deusezak zirela adieraziz, baina errekurtsoa ezetsi egin zuen ostalaritza-establezimenduen arteko gutxieneko distantzien beste araubideari dagokionez.

2. Bilboko Hiri Antolaketarako Plan Orokorraren (HAPO) barruko 7. Ordenantza, Zabalguneari dagokiona

Aurreko puntuan azaldutakoen pareko arrazoiak direla eta, LEA/AVCk Bilboko Hiri Antolaketarako Plan Orokorraren (HAPO) barruko 7. Ordenantza, Zabalguneari dagokiona, aurkaratu zuen; hirigintza-erabilera batzuetarako, besteak beste, ostalaritzarako araubide berri bat ezartzean zetzan. Ordenantza 2016ko azaroaren 24ko bilkuran onetsi zen behin betiko eta 2016ko azaroaren 30eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Memoria hau idazteko unean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa epaiaren zain dago.

V. Jarduera instituzionala

1. Kargu-uzteak eta izendapenak

2017ko irailean, LEK berritu egin zen, Alba Urresola Clavero LEA/AVCko lehendakari izendatu baitzuten, aurreko lehendakariak 2017ko ekainaren 30ean karguari uko egin ostean. Egun berean, Enara Venturini Álvarez LEKeko kide izendatu zuten, aurrekoa, Natividad Goñi Urriza, ordezkatzeko, hark 2017ko abuztuaren 1eko ondorioetarako datan karguari uko egin baitzion.

Bestalde, Rafael Iturriaga Nievak LEKeko kide izaten jarraitu du, aurreko lehendakariak kargua utzi ostean LEA/AVCko jarduneko lehendakaria izanda, Alba Urresola Clavero izendatu arte.

Hala, Euskal Gobernu Kontseiluak, Ogasun eta Ekonomiako sailburuak proposatuta, 2017ko irailaren 12ean bi dekretu onetsi zituen: Alba Urresola Clavero¹³ andrea LEA/AVCko lehendakari izendatzen zuena eta Enara Venturini Álvarez¹⁴ andrea LEKeko kide izendatzen zuena.

Alba Urresola Deustuko Unibertsitateko Zuzenbideko lizentziaduna da eta maîtrise (lizentzia) delakoa lortu zuen Bordeleko Unibertsitatean, zuzenbide publikoaren eta nazioarteko eta Europako zuzenbidearen adarrean. Gainera, Erkidegoko Zuzenbideko graduondoa egin zuen Deustuko Unibertsitateko Europako Ikasketen Institutuan, baita Erkidegoko Zuzenbideko masterra ere Brujasko (Belgika) Collège d'Europe entzutetsuan. 2001etik 2017ko iraileko izendapenera arte, Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioko Aholkularitza Juridikoko eta Barne Kontroleko zuzendariordea izan zen; lehenago, Cuatrecasas langelan abokatu izan zen, Bruselako, Bartzelonako eta Bilboko bulegoetan.



Enara Venturini Amorebieta-Etxanoko Udaleko Ametx erakunde autonomoko kudeatzailea izan da. Zuzenbideko lizentziaduna da, Deustuko Unibertsitateko Enpresa Zuzendaritzako master executive delakoa dauka eta Deustuko Unibertsitateko Europako Integrazioko masterra ere bai. Halaber, Europako Ikasketetako diplomaduna da Belgikako Lovainako Unibertsitatean. Haren lanbide-jarduera enpresen kudeaketan garatu da nagusiki, bai sektore pribatuan bai publikoan.




2017ko irailaren 15ean, bi izendapenak EHAA n argitaratu ziren. Biharamunean sartu ziren indarrean .

13 219/2017 DEKRETUA, irailaren 12koa, Lehiaren Euskal Agintaritzako lehendakaria izendatzeko dena. 2017ko irailaren 15eko EHAA, 219. zk. Biharamunean sartu zen indarrean.

14 220/2017 DEKRETUA, irailaren 12koa, Lehiaren Euskal Agintaritzako kide bat izendatzen duena. 2017ko irailaren 15eko EHAA, 219. zk. Biharamunean sartu zen indarrean.

2. Agerraldia Eusko Legebiltzarrean

2017ko urriaren 16an, LEA/AVCko lehendakaria Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Batzordeak eskatuta agertu zen, 6/2013 zehapen-ebazpena, Lehiaren Euskal Kontseiluak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak lizitatutako eskolako jantoki publikoei zerbitzua ematen zieten enpresei ezarritakoa, azaltzeko.



3. Lehia Defendatzeko Kontseiluaren lehia-sarea

LEA/AVCk Lehia Defendatzeko Kontseiluaren 2017ko otsailaren 20ko bileran parte hartu zuen.

4. MLBNko lantaldeak

A. Koordinazio-lantaldea

Koordinazio-lantaldea autonomia-erkidegoetako lehia-agintaritzetako eta MLBNko ikerketazuzendaritzek osatzen dute. 2017ko otsailaren 20an, maiatzaren 9an eta abenduaren 14an bilerak egin dira eta LEA/AVCko ordezkariak bertan izan dira. Besteak beste, kasuen esleipena, komunikazioen eta jakinarazpenen hobekuntza eta beste gai batzuk aztertu ziren, hala nola arauak betetzeko programak (compliance) eta zehapenaren modulazioan izan dezaketen ondorioak.

B. Lehia sustatzeko lantaldeak

Lehiaren Jardunaldi Nazionalen bezperan, azaroak 22, Sustapen Taldearen bilera bat egin zen Santiago de Compostelan. LEA/AVCko lehendakaria eta Lehiaren Euskal Kontseiluko kide bat joan ziren. Gai hauek jorratu ziren: merkatu-azterketak egiteko metodologia, Kontratuen Lege berrirako sarrera, lehiaren sustapenaren ikuspegitik, eta lehia-agintaritzek egindako sustapen-jarduketeki buruzko eguneratzea.


C. Kontseiluen lantaldea

2017ko abenduaren 4an, LEA/AVCko lehendakaria Kontseiluen Taldearen bilerara joan zen. Bilera horretan, Sektore Publikoko Kontratuen Legean sartu den kontratatuzko debekuen araubidea eta 39/2015 Legeak zehapen-prozedurak 15/2007 Legearen babesean izapidetzean duen eragina jorratu ziren eta, azkenik, LBLren aplikazioaren balantzea egin zen, 10 urtez indarrean egon ostean.

D. Lehiaren Defentsarako X. Jardunaldi Nazionalak, Santiago de Compostelan

LEKeko kideak, Ikerketako zuzendaria, idazkari nagusia eta LEA/AVCko lehiako arduradunak Lehiaren Defentsarako X. Jardunaldi Nazionalera joan ziren. Santiago de Compostelan izan ziren, 2017ko azaroaren 23an eta 24an. Jardunaldien xedea honako hau analizatzea izan zen: "Lehia askea, arauketa egokia eta merkatu-batasuna kontsumitzaileen mesedetan".

Lehiari buruzko urteroko jardunaldiek ezagutzak eskuratzea ahalbidetzen dute eta, gainera, foro bikaina dira autonomia-erkidegoetako lehia-agintaritzetako eta MLBNko langileek esperientziak partekatzeko, informazioa trukatzeko eta elkar aberasteko.



E. Antitrust Zuzenbideko Behatoki Iraunkorra, Moenako (Italia) Trentoko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatearekin elkarlanean

LEA/AVCk estatukoa ez den erakunde bakar gisa parte hartu zuen Antitrust Zuzenbideko Behatoki Iraunkorrak Moenako (Italia) Trentoko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatearekin elkarlanean antolatzen duen udako ikastaroan, lehiaren zuzenbideari buruzkoan, 2017ko ekainaren 18tik 24ra arte.



Ikasketa teorikoa eta lehiari buruzko legeak Europako zenbait lurraldetan aplikatzeko hurbilketa praktikoa konbinatzen dituen ikastaro aurreratua da.

5. Erakunde-harremanak

Urteko azken hiruhilekoarekin bat etorriz, udalekin eta erakunde publiko zein pribatuekin harremanak eta bilerak egin dira, lehia sustatzeko asmoz. Hauek dira nabarmenenak:

- Bilboko eta Donostiako udalak.
- Bizkaiko Etxebizitza Turistikoen Elkartea (Asovitur).
- Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Organoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia.
- Bizkaidendak.
- UPV/EHU.

6. LEA/AVCren agenda

Hona hemen LEA/AVCren agenda, 2017ko irailetik:

- **2017ko irailaren 12a.** Euskal Gobernu Kontseiluak, Ogasun eta Ekonomiako sailburuak proposatuta, bi dekretu onetsi zituen: Alba Urresola Clavero andrea LEA/AVCko lehendakari izendatzen zuena eta Enara Venturini Álvarez andrea LEKeke kide izendatzen zuena.
- **2017ko irailaren 15a.** Izendapenak EHAAn argitaratu ziren.
- **2017ko irailaren 26a.** Bilera Bilboko Udalarekin.
- **2017ko irailaren 27a.** Etxebizitza turistikoari buruzko bilera Donostiako Udalarekin.
- **2017ko urriaren 11.** Urte judizialaren hasierako ekitaldira joatea.
- **2017ko urriaren 16a.** Agerraldia Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean. Eskola-jantokiak.
- **2017ko urriaren 18a.** Bilera Bizkaidendak-ekin.
- **2017ko urriaren 24a.** Lehiari buruzko Jardunaldia Madril. LBLren X. urteurrena.
- **2017ko urriaren 25a.** Lehen topaketa instituzionala LEKeke kideen eta MLBNko lehendakariaren eta kontseilarien artean.
- **2017ko urriaren 27a.** Plan Estrategikoari buruzko bilera. Diagnostiko-fasearen hasiera.
- **2017ko azaroaren 2a.** Bilera Donostiako Udalarekin. Etxebizitza turistikoari buruzko araudia.
- LEA/AVCko idazkari nagusiaren, Lourdes Muñoaren, izendapena.
- **2017ko azaroaren 3a.** Lehen topaketa instituzionala LEA/AVCren egoitzan Euskadiko Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Organoarekin.
- **2017ko azaroaren 8a.** Topaketa instituzionala LEA/AVCren egoitzan Juan Luis Ibarrekin (Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko lehendakaria) eta Luis Ángel Garrido Bengoechearekin (EAEJANeko administrazioarekiko auzien salako lehendakaria).
- **2017ko azaroaren 10a.** Bilera Eusko Jaurlaritzako Europako Gaietarako zuzendariarekin.
- **2017ko azaroaren 13a.** Bilera Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzako zuzendariarekin. Eraikinen ikuskapen teknikoa egiteko gaitutako tituluak arautzeko dekretu-proiektuari buruz.
- **2017ko azaroaren 21a.** Bilera Isabel Muela López Turismo eta



Merkataritzako sailburuordearekin. Apartamentu turistikoetako buruzko araudiaren inguruan.

- **2017ko azaroaren 22a.** Bilera autonomia-erkidegoetako eta MLBNko agintaritzen sustapenerako lantaldearekin Santiago de Compostelan.
- **2017ko azaroaren 23a eta 24a.** Lehiaren Defentsarako X. Jardunaldi Nazionalak, Santiago de Compostelan.
- **2017ko azaroaren 29a.** HAEK Kontratuen Lege berriari buruz eskainitako ikastaroa, Javier Serrano Chamizok emandakoa. LEA/AVCKo lehendakariaren mintzaldia, lehiaren ikuspegitik egindako kontratazio publikorako gida bat argitaratuko dela iragartzeko.
- **2017ko abenduaren 4a.** Bilera MLBNko Sustapeneko zuzendariarekin. Bilera MLBNko eta autonomia-erkidegoetako agintaritzetako Kontseiluen Lantaldearekin.
- **2017ko abenduaren 5a.** Bilera Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialarekin.
- **2017ko abenduaren 11.** Bilera UPV/EHUrekin.
- **2017ko abenduaren 13a.** Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Finantza eta Aurrekontu sailburuordearen bisita instituzionala LEA/AVCKren egoitzara.
- **2017ko abenduaren 14a.** Bilera Asovitur Bizkaiko Etxebizitza Turistikoen Elkartearekin.
- **2017ko abenduaren 15a.** Bilera Bilboko Udalarekin. Etxebizitza turistikoak.
- **2017ko abenduaren 22a.** Bilera Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarekin. Eusko Jaurlaritza.
- **2017ko abenduaren 26a.** LEKek LEA/AVCKren 2018-2022rako Plan Estrategikoa onetsi du.
- **2017ko abenduaren 27a.** LEA/AVCKo lehendakaria Euskal Sozietateko ordezkarien harrerara, Lehendakaritzan antolatutakora, joan da.



7. Lehiaren arloan dauden sareak sendotzea

A. Lehiaren Zuzenbideko Espainiako Elkarteak

2017. urtean, LEA/AVCK Lehiaren Zuzenbideko Espainiako Elkarteak (AEDC) antolatutako bi jardunalditan parte hartu zuen. Saiioetan gai hauek jorratu ziren:

1. Proba ekonomikoaren erabilera lehiaren defentsaren berrikuspen judizialerako ikerketetan eta prozesuetan. 2017ko ekainaren 7an egin zen, MLBNrekin elkarlanean.
2. LEHIARI LOTUTAKO LEGEZ KONTRAKO EKINTZEN ONDORIOEI BURUZKO JARDUNALDIA, 2017ko irailaren 27an.

B. Lehiaren Sare Akademikoa

2017. urtean, RADCKren hirugarren jardunaldia egin zen, Kordoban (2017ko ekainaren 1ean eta 2an). "Lehiaren zuzenbidea, eztabaidagai. Egungo erronkak eta auziak" kongresu nazionalan, Kordobako Unibertsitateko Merkataritza Zuzenbideko Arloak antolatuan, txertatua.

V. Aurrekontua ea giza baliabideak

1. Aurrekontua

Apirilaren 11ko 2/2017 Legearen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko 2017ko ekitaldirako aurrekontu orokorrak onartu ziren.

LEA/AVCren aurrekontu eguneratua 1.200.753 eurokoa izan zen.

Aurrekontu horren ikusizko irudikapena modu honetara adieraz daiteke, aurrekontua, betebeharrak onartuak eta ordainketak alderatuz:

EJECUCIÓN A DICIEMBRE DEL 2017							
Número	Presupuesto	Disposición de gasto		Obligaciones reconocidas		Pagos	
1. Gastos de personal	953.007 €	922.714 €	96,8%	881.875 €	92,5%	881.875 €	92,5%
2. Gastos de funcionamiento	247.746 €	239.368 €	96,6%	237.010 €	95,7%	222.941 €	90,0%
3. Operaciones corrientes	1.200.753 €	1.162.082 €	96,8%	1.118.886 €	93,2%	1.104.816 €	92,0%

Aurrekontuaren xehetasunak partidaka ikusteko, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailaren webgunea kontsulta daiteke. Atala: Lehiaren Euskal Agintaritzako aurrekontuaren betearaztea¹⁵.

2. Giza baliabideak


2017ko azaroaren 2an, LEA/AVCko idazkari nagusiaren lanpostu hutsa bete da, Lourdes Muñoa Corrales okupatu baitu kargua. Azken laneratze horrekin, LEA/AVCk langile-zuzkidura osoa beteta dauka. Guztira, 13 pertsona dira:

- Kontseiluko 3 kide (2 emakume eta gizon bat).
- Idazkari nagusi 1.
- Ikerketako zuzendari 1.
- Lehendakariaren idazkari 1.
- Kontabilitateko administrari 1.
- Lehiako 6 arduradun (3 gizon eta 3 emakume): 2 ekonomialari eta Zuzenbideko 4 lizentziadun.

¹⁵ EUSKO JAURLARITZAKO OGASUN ETA EKONOMIA SAILA. Webgunea url helbide honetan dago eskuragarri:
http://www.euskadi.eus/web01-a3ogaoce/es/contenidos/informacion/ejec_pres_avc_2017/es_def/index.shtml

VI. Erabilitako laburdurak

EAZ	Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza
AEDC	Lehiaren Zuzenbideko Espainiako Elkarte
HJA	Higiezin Jabetzako Agenteak
ASOVITUR	Bizkaiko Etxebizitza Turistikoen Elkarte
AVITRANS	Gipuzkoako Bidaiarien Hiri Arteko Garraioen Enpresa Elkarte
BOE	Estatuko Aldizkari Ofiziala
EHAA	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
CECOBI	Bizkaiko Merkataritzako Enpresarien Konfederazioa
MLBN	Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala
EHAEO	Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala
HLBHIP	Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Pribatua
BHIP	Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Pribatua
LEK	Lehiaren Euskal Kontseilua
IZ	Ikerketa Zuzendaritza
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia
ILEak	Ingurumen-lankidetzako erakundeak.
EJ	Eusko Jaurlaritza
BHI	Bigarren Hezkuntzako Institutua
EIT	Eraikinen Ikuskapen Teknikoa
BLL	Bidegabeko Lehiaren Legea
LBL	Lehiaren Babesari buruzko Legea
LEA/AVC	Lehiaren Euskal Agintaritza / Autoridad Vasca De La Competencia
PZL	Prozedura Zibilaren Legea.
ELO	Eraikingintzaren Lege Organikoa.
TAO	trafiko eta aparkamenduaren ordenamendua
HAPO	Hiri Antolamenduko Plan Orokorra
ETE	Enpresa txiki eta ertaina
RADC	Lehiaren Zuzenbidearen Sare Akademikoa
SEA	Arabako Enpresen Sindikatua (SEA Arabako Enpresak)
AG	Auzitegi Gorena
EAEJAN	Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia
Andaluziako JAN	Andaluziako Justizia Auzitegi Nagusia
TUVISA	Transporte Urbano Vitoria SA
UPV/EHU	Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
ABEE	Aldi baterako enpresa-elkartea



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia